

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTARONGO UDALA

Jendaurrean jartzea Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 2024ko ekitaldiko erroldak

Arabako Foru Aldundiak osaturik Lantarongo hiri, landa eta ezaugarri berezietako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 2024ko ekitaldiko erroldak, jendaurrean jartzen dira, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauak 21.2. artikuluan xedatutakoa betez; udal bulegoetan egongo dira erakusgai, hamabost egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara, aztertu ahal izateko eta, hala badagokio, egoki jotzen diren erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Iragarki honek, orobat, betetzen du erroldetan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrek 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Komunioi, 2024ko apirilaren 16a

Alkatea

JOSÉ LUIS SALVIDEA MARTINEZ